

SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

AKTA ZK./ ACTA Nº	301/19		
LEKUA/ LUGAR	San Marko Mankomunitatea- Bilera aretoa <i>Mancomunidad de San Marcos- Sala de Reuniones</i> Vitoria-Gasteiz 10; Donostia-San Sebastian		
EGUNA/ DÍA	ORDUA/ HORA	DEIALDIA/ CONVOCATORIA	Deialdi eguna/ Fecha convocatoria
2019/12/20 20/12/2019	Hasiera/inicio: 09:30 Amaiera/final: 10:05	Ohikoa <i>Ordinaria</i>	2019/12/13 13/12/2019

BERTARATUAK/ASISTENTES				
1. KIDEAK/VOCALES				
UDALA/ AYTO.	KIDEA/ VOCAL	BERTARATUA/ HA ASISTIDO		BOZKAK VOTOS
		BAI/SI	EZ/NO	
DONOSTIA SAN SEBASTIAN	Aitziber San Román Abete	X		23,5
	Enrique Ramos Vispo (<i>Suplente de Ernesto Gasco Gonzaloren ordezkoa</i>)	X		23,5
LASARTE-ORIA	Agustin Valdivia Calvo		X	--
	Jon Antxordoki Rekondo		X	--
PASAIA	Lore Suarez Linazasoro		X	--
	Loreto Osa Ocon	X		6,5
URNIETA	Jorge Segurado Iriondo	X		5,5
	Mikel Pagola Tolosa	X		5,5
LEZO	José Ángel Sánchez Gallardo	X		5,5
	Miguel Ángel Sánchez Antúnez	X		5,5
ASTIGARRAGA	Xabier Urdangarin Lasa	X		5,0
	Aitor Güemes Oyarbide		X	--
ERRENTERIA	Bernardo Lemos Taberna	X		8,5
	Ion Collar Rioseco (<i>Suplente de Jose Manuel Ferradas Freijoren ordezkoa</i>)	X		8,5
HERNANI	Martin Aldaya Olasagasti	X		6,5
	Mª Coro Echeverria Tolosa		X	--
OIARTZUN	Eneritz Arbelaiz Sarasti	X		5,5
	Agustin Lekuona Irastorza	X		5,5
USURBIL	Lur Etxeberria Gurrutxaga	X		5,5
	Beñat Larrañaga Urdanpilleta (<i>Suplente de Joxe Mari Iribar Zapirainen ordezkoa</i>)	X		5,5
2. BESTEAK/OTROS		GUZTIRA TOTAL		126
IDAZKARIA/ SECRETARIO	Xabier Loiola Aristi	ZUZENDARI KUDEATZAILEA DIRECTORA GERENTA		Enara Intxausti Zamora
KONTU- HARTZAILEA/ INTERVENTOR	Julian Ortiz Arruabarrena (3.gaitik aurrera/Desde el 3º punto.)	TEKNIKARI JURIDIKOA/ TÉCNICA JURÍDICA		Mirari Arriola Irizar

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DIA

1. Aurreko 2 bileretako aktak onartzea.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.
3. 102/2019 ebazpenaren ratifikazioa
4. Mankomunitateko eremuan, hondakinen gaikako bilketa-zerbitzua kudeatzeko kontratuaren luzapena onartzea.
5. 14/2019 lizitazio espedientea hasia: "San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua"
6. Galde-eskeak.

1. Aprobar las actas de las 2 reuniones anteriores.
2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.
3. Ratificación de la resolución 102/2019
4. Aprobación de la prórroga del contrato de servicio de recogida selectiva de residuos en el ámbito territorial de la mancomunidad.
5. Iniciar el expediente de licitación 14/2019: "Servicio de recogida, transporte y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos"
6. Ruegos y preguntas.

Lehendakariak Zuzendari-Kudeatzaile berria, Enara Intxausti Zamora, aurkeztu du. Abenduaren 16ean hasi zen lanean. Lehendakariak ongi etorria eman dio.

El Presidente procede a presentar a la nueva Directora-Gerenta, Enara Intxausti Zamora, quien se ha incorporado a su cargo el 16 de diciembre. El Presidente le da la bienvenida.

Enara Intxaustik eskerrak eman ditu eskaini zaion aukera eta konfiantzagatik eta hasierako egunetan Mankomunitateko taldearengandik jaso duen laguntzagatik.

Enara Intxausti ha agradecido la oportunidad y la confianza recibidas, así como la ayuda del equipo de la Mancomunidad durante los primeros días.

Lehendakariak ongi etorria eman dio ere Lur Etxeberriari, Usurbilgo udaleko ordezkari titular berria.

El Presidente da la bienvenida asimismo a Lur Etxeberria, nueva representante del ayuntamiento de Usurbil.

1. Aurreko 2 bileretako aktak onartzea.

1. Aprobar las actas de las 2 reuniones anteriores.

Aurreko bi bileren aktak aho batez onartu dira:

Se aprueban por unanimidad las actas de las dos sesiones siguientes:

- 2019.11.22: Ez-ohiko-urgentea batzarra (300/19)
- 2019.11.15: Ez-ohiko batzarra (299/19)

- 2019.11.22: Junta extraordinaria urgente (300/19)
- 2019.11.15: Junta extraordinaria (299/19)

2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari, 10 ebazpen (96/2019-105/2019).

2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta, 10 resoluciones (96/2019-105/2019).

3. 102/2019 ebazpenaren ratifikazioa

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

102/2019 zenbakiko ebazpena berrestea proposatzen da. Horren bidez, San Markoseko transferentzia-estazioari dagokionez, kontratu berria 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen sinatzen ez bada, eta 2018ko maiatzaren 25ean indarrean dagoen kontratua luzatzeko 1. klausulan ezarritakoaren arabera (eta ondorengo lagatzeko), FCC Medio Ambiente, S.A.k jarraitu egin beharko du zaborteigiko gainerako zerbitzuak ematen.

3. Ratificación de la resolución 102/2019

El Presidente explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

Se propone ratificar la resolución nº 102/2019, mediante la cual se acuerda, en relación con la estación de transferencia de San Marcos, que, siempre y cuando no se llegue a firmar el nuevo contrato antes del 01 de enero de 2020, y según lo establecido en la cláusula 1ª de la prórroga del contrato en vigor del 25 de mayo de 2018 (y su posterior cesión), FCC Medio Ambiente, S.A. deberá continuar con la prestación de los restantes servicios del vertedero y facturar el coste/día en concordancia con la cláusula 4ª de la prórroga.

Halaber, erabaki da, azkenean beste kontratu bat urtarrilaren 1a baino lehen sinatzen bada, 2018ko maiatzaren 25eko kontratuaren luzapena bertan behera geldituko dela.

Asimismo, se acuerda que en el caso de que finalmente se pudiera firmar un nuevo contrato antes del 01 de enero, la prórroga del contrato de fecha 25 de mayo de 2018 quedará resuelta.

Erabaki honek kontratuaren luzapenaren 2. klausulan ezarritako epea betetzen du.

Este acuerdo cumple el plazo establecido en la cláusula 2ª de la prórroga del contrato.

Hernaniko ordezkariak, Martín Aldayak informazioa eskatu du kontratua sinatuko ez balitz zer gertatuko litzatekeen jakiteko.

El representante de Hernani, Martín Aldaya, pide información sobre cuál sería la situación si no se firmara el contrato.

Lehendakariak erantzun du funtsean epeei buruzko arazoa dela eta enpresa emakidadunari jakinarazi zaiola Zubietako instalazioa martxan jarri ondoren San Markosen desagertuko diren zerbitzuak zeinek izango diren, transferentzia gunearen zerbitzuak kasu.

El Presidente contesta que se trata básicamente de un problema relativo a los plazos y que se ha informado ya a la empresa concesionaria de los servicios que desaparecen en San Marcos tras la puesta en marcha de la planta de Zubieta, como es el caso de los servicios de la planta de transferencia.

Momentu honetan bilerara sartu da Mankomunitateko Kontuhartzailea, Julian Ortiz Arruabarrena.

En estos momentos se incorpora a la sesión el Interventor de la Mancomunidad, Julian Ortiz Arruabarrena.

Mankomunitateko teknikari juridikoak, Mirari Arriolak, ebazpen hau berresteko arrazoi juridikoak azaldu ditu.

La Técnica Jurídica de la Mancomunidad, Mirari Arriola, explica las razones jurídicas por las que es necesario ratificar esta resolución.

Nolanahi ere, kontratu berria urtarrilaren 1a baino lehen sinatzea da helburua.

Ambos responden que, en cualquier caso, el objetivo es firmar el nuevo contrato antes del 1 de enero.

Bozketaren burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

4. Mankomunitateko eremuan, hondakinen gaikako bilketa-zerbitzua kudeatzeko kontratuaren luzapena onartzea.

4. Aprobación de la prórroga del contrato de servicio de recogida selectiva de residuos en el ámbito territorial de la mancomunidad.

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

El Presidente explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

2019ko azaroaren 21ean Mankomunitate honetan jaso da Carmelo Aguas Martínez jaunak **Selectiva San Marcos II, UTE** enpresaren izenean egindako idatzia, non gaur egun San Marko Mankomunitatearen alorrean Erakunde honekin sinatua duten hondakinen gaikako bilketa zerbitzua kudeatzeko kontratua jarraitzeko borondatea agertzen duen, ezarritako baldintzetan.

Con fecha 21 de noviembre de 2019 se ha recibido en esta Mancomunidad escrito por parte de Don Carmelo Aguas Martínez en representación de la empresa **Selectiva San Marcos II, UTE**, en la que muestran su voluntad para continuar con el Contrato para la gestión del servicio de recogida selectiva de residuos en el ámbito de la Mancomunidad de San Marcos que actualmente tienen suscrito con ésta Entidad, en las condiciones establecidas.

Kontratu hori 2014ko abenduaren 19an sinatu zen eta 2015eko urtarrilaren 1ean abiatu zen, data horretatik aurrera hasi zelarik Baldintza Administrazioaren Agiriaren 2. artikuluan ezarritako lau urteko epea. Artikulu horretan bertan, era berean, kontratuak beste bi (2) urteko luzapena izan dezakeela ezarrita dago. Lehen luzapena Mankomunitateko Batzarrek erabaki zuten 2018ko azaroaren 23an eta abenduaren 20an sinatu zen; hau egin litezkeen bigarren eta azken luzapena litzateke.

Dicho contrato se firmó el 19 de diciembre de 2014, y su comienzo data del 1 de enero de 2015, fecha a partir de la cual se iniciaba el cómputo del plazo de 4 años establecido en el artículo 2 del Pliego de Cláusulas Administrativas. En este artículo se establece asimismo que el contrato podrá ser objeto de prórroga de otros dos (2) años, prorrogables anualmente. La primera prórroga se acordó por la Junta de la Mancomunidad el 23 de noviembre de 2018 y se firmó el 20 de diciembre.

Orain bigarren eta azken luzapena proposatzen da urtebetekoa, 2020ko abenduaren 31 bitartekoa.

Se propone ahora realizar una segunda y última prórroga por el plazo de un año, hasta el 31 de diciembre de 2020.

Prezioari dagokionez, luzapen honek, kontratuan eta lehenengo luzapenean ezarritako prezio bera mantenduko du, hots, 3.205.174,14 euro urteko, dagokion %10-eko

En cuanto al precio, esta prórroga mantendrá el mismo precio establecido en el contrato y en la primera prórroga, es decir, de 3.205.174,14 euros anuales más el correspondiente IVA del

BEZa gehituz, guztira, 3.525.691,55 euro gehitzen dituzte.

10%, que suman un total de 3.525.691,55 euros anuales.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

En base a estos antecedentes SE PROPONE votar el siguiente **ACUERDO**:

LEHENA: Selectiva San Marcos II, ABEEekin Mankomunitateko eremuan, hondakinen gaikako bilketa zerbitzua kudeatzeko kontratuaren urtebeteko luzapena onartzea, 2020ko abenduaren 31 arte eta prezioa 3.525.691,55€tan.

PRIMERO: Aprobar la prórroga por un año, hasta el 31 de diciembre de 2020, y con el precio de 3.525.691,55 euros del contrato que la mancomunidad tiene firmado con **Selectiva San Marcos II, UTE**, para la prestación del servicio de recogida selectiva de residuos en el ámbito territorial de la mancomunidad.

BIGARRENA: Zehaztutako baldintzetan kontratua sinatzeko lehendakariari ahalmena ematea.

SEGUNDO: Facultar al Presidente de la Mancomunidad para la firma del contrato en las condiciones aprobadas.

HIRUGARRENA: Akordio honen berri ematea Selectiva San Marcos II, UTE ABEEri.

TERCERO: Notificar este acuerdo a Selectiva San Marcos II, UTE

Hernaniko ordezkaria den Martin Aldayak jakinarazi du abstenitu egingo direla zerbitzu hori jasotzen ez dutelako.

El representante de Hernani, Martin Aldaya, indica que se abstendrán porque no reciben este servicio.

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko **97,5** botorekin eta **28,5** abstentziorekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por **97,5** votos a favor y **28,5** abstenciones.

Abstentzioko **28,5** boto Hernani, Usurbil eta Oiartzungo ordezkarietara dagozkie.

Los **28,5** votos de abstención corresponden a los representantes de Hernani, Usurbil y Oiartzun.

5. 14/2019 lizitazio espedientea hastea: "San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua"

5. Iniciar el expediente de licitación 14/2019: "Servicio de recogida, transporte y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos"

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

El Presidente explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

Garbiguneetan bildutako hondakinen barruan, hondakin arriskutsu delakoak aurkitzen ditugu. Herritarrek beren ohiko jardueraren ondorioz sortzen dituzte hondakin horiek: margotze lanak, konponketa txikiak, automobilerako lanak, tonerrak, pilak, eta abar.

Dentro de los residuos recogidos en los *garbigunes* encontramos los denominados residuos peligrosos. Estos residuos son generados por los ciudadanos en distintos ámbitos dentro de su actividad habitual: pintado, pequeñas reparaciones, automoción, tóneres, pilas, etc.

Halako hondakinak horretarako baimendutako kudeatzaileek kudeatu behar dituzte. Arian-arian, bildutako kopuruak handitzen ari dira; horregatik, kudeaketako fakturazioa handitzen ari da, eta beharrezko bihurtu da zerbitzu hori lizitazio publikoaren bitartez kontratatzea.

Estos residuos deben ser gestionados por operadores autorizados para ello. El gradual incremento de las cantidades recogidas está suponiendo un aumento de la facturación de su gestión, por lo que se hace necesaria la contratación de este servicio a través de licitación pública.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

En base a estos antecedentes SE PROPONE votar el siguiente **ACUERDO**:

LEHENA: "San Marko Mankomunitatearen eskumen eremuan sorturiko etxeko hondakin arriskutsuak jaso, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua" kudeatzeko kontratazio espedientea onartzea (14/2019).

PRIMERO: Aprobar el expediente (14/2019) para la contratación del "Servicio de recogida, transporte y gestión de residuos peligrosos domésticos generados dentro del ámbito competencial de la Mancomunidad de San Marcos".

BIGARRENA: Kontratuaren beharrezkotasun eta egokitasuna onartzea, baita kontratazioa arautzeko Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria ere.

SEGUNDO: Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones Técnicas, así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

HIRUGARRENA: Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

TERCERO: Disponer el inicio del procedimiento de adjudicación.

LAUGARRENA: 2020ko aurrekontuaren partiden kargura gastua onartzea.

CUARTO: Aprobar el gasto con cargo a las partidas del presupuesto de 2020.

BOSGARRENA: Lizitazioa kontratugilearen profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea (EBAO).

QUINTO: Publicar la licitación en el perfil del contratante y en el Diario Oficial de la Unión Europea (DOUE).

SEIGARRENA: Mankomunitateko Lehendakariari ahalmena ematea kontratazio mahaia harturiko proposamenaren baitan, kontratua esleitzeko eta sinatzeko, baita mahaiko kideak izendatzeko eta beharrezko administrazio tramiteak burutzeko ere.

SEXTO: Facultar al Presidente de la Mancomunidad para la adjudicación y firma del contrato, según la propuesta de la mesa de contratación, así como nombrar a los miembros de la mesa de contratación y efectuar los trámites administrativos que procedan.

Lehendakariak azaldu du 5. Puntuako EBAOn argitaratzea aurrerago erantsi dela, izan ere, araudi harmonizatuko kontratu bat da eta aipaturiko aldizkari ofizialean argitaratu beharra dago.

El Presidente explica que la publicación en el DOUE del punto quinto se ha introducido a posteriori, puesto que se trata de un contrato con regulación armonizada y se debe publicar en dicho diario oficial.

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

6. Galde-eskeak.

1. Lehendakariak GHKko Batzarraren azken bileran azertu ziren eta Mankomunitateari eragiten dioten puntu batzuen berri eman du.

- a) GHKren tarifetan %5eko igoera aplikatuko dela baieztatu da. Horrek ez du esan nahi Mankomunitatearen aurrekontuan inolako doikuntzarik egin behar denik, biorresidua eta errefusa kontzeptuengatik GHKri dagokion gastua jasota baitago.

Kontu-hartzaileak horri buruzko informazioa zabaldu du: GHKk tarifa bakarra fakturatzen dio Mankomunitateari. Mankomunitateak kasu bakoitzean dagokion bolumenaren arabera aplikatzen dio gastua udalerrri bakoitzari. Gerta litezkeen aldaketengatik arazorik sor ez zedin, aurrekontua betearazteko arauan sartzea erabaki zen Mankomunitateak GHKri ordaintzen dion kreditua handitu daitekeela. Hori dela eta, urte amaieran kreditua handitu liteke, tarifen igoerak hala eskatzen badu.

Mankomunitateko udalek, bestalde, GHKko tarifen igoera eta sortzen duten tona-kopuruaren balizko aldaketak ere kontuan hartu beharko lituzkete beren aurrekontuetan.

- b) Bestalde, GHKko lehendakari José Ignacio Asensio GHKk Urnietako instalazioa ere kudeatzeko proposamena aurkeztu zuen jendaurrean.

Proposamen hori azertu beharko da, kontuan hartuz, besteak beste, Mankomunitateak instalazio horren kudeaketan egindako ibilbide historikoa eta egindako inbertsioak. Proposamena azertu eta behar diren txostenak egin ondoren, negoziazioa bideragarria den ala ez erabaki ahal izango da, Mankomunitatearen interesak uneoro defendatuz.

6. Ruegos y preguntas

1. El Presidente informa sobre algunos puntos que se trataron en la última Junta de GHK y que afectan a la Mancomunidad.

- a) Se confirmó que se aplicará un aumento del 5% a las tarifas de GHK. No obstante, esto no supone ningún ajuste en el presupuesto de la Mancomunidad, en el que ya está reflejado el gasto correspondiente a GHK por los conceptos de biorresiduo y rechazo.

El interventor amplía la información al respecto como sigue: GHK factura a la Mancomunidad una tarifa única. La Mancomunidad aplica el gasto a cada municipio en función del volumen correspondiente en cada caso. Para evitar que se generasen problemas por posibles variaciones se decidió incluir en la norma de ejecución presupuestaria que el crédito por el que la Mancomunidad abona a GHK se declaraba ampliable. Por ello, se podría ampliar el crédito a finales de año si la aplicación de la subida de tarifas así lo requiere.

Los ayuntamientos de la Mancomunidad, por su parte, deberían tener en cuenta también en sus presupuestos tanto la subida de tarifas de GHK como posibles variaciones en el número de toneladas que generen.

- b) Por otra parte, el Presidente de GHK, José Ignacio Asensio planteó públicamente la propuesta de que GHK gestione también la planta de Urnieta.

Será preciso estudiar esta propuesta teniendo en cuenta, entre otros, el recorrido histórico de la Mancomunidad en la gestión de esta planta y las inversiones realizadas. Una vez analizada la propuesta y realizados los informes pertinentes, será posible decidir si es viable una negociación al respecto, defendiendo en todo momento los intereses de la Mancomunidad.

Horretaz aparte, aipatu beharra dago onurak sortzen dituen Mankomunitateko zerbitzuetako bat dela.

Mankomunitateak gai hori 2020ko otsailetik aurrera agendan sartzea proposatu du.

2. Bernardo Lemos Errenteriako ordezkariak bi eskaera egin ditu:

- alde batetik, plan bat eskatu dute San Markoko zabortegia behin betiko itxeko, dagozkion epeak ezarrita; handik bolumen handikoak eta kimaketarenak lehen bait lehen atereaz.
- bestalde, eskatzen du kontuan hartzea Gabonetan bilketa bereziak egiteko beharra izaten dela, aurreko urteko arazo berak sor ez daitezzen (beira eta ontzi arinen edukiontzien falta edo bilketa eskasagatik).

Lehendakariak honela erantzun du:

San Markoko zentroari buruzko eskaerari dagokionez, GHKk Zubietako instalaziorako duen kudeaketa-planaren arabera izango da; beraz, gai hori GHKrekin koordinatu beharko da. Batzarrari horren berri emanen zaio.

Bigarren eskaerari dagokionez, teknikari arduradunarekin hitz egingen da, bilketa ahalik eta eraginkorra izan dadin udal guztietan.

Akta ixtea

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko 10:05 direnean.

Idazkari naizen aldetik, akta 1452521tik 1452528era zenbakiak dituzten orri ofizialetan jaso eta berrespena ematen diot Lehendakariaren oniritziak.

EL SECRETARIO/IDAZKARIAK

Es importante reseñar además que es uno de los servicios de la Mancomunidad que genera beneficios.

Por parte de la Mancomunidad, se ha planteado incluir este tema en la agenda a partir de febrero de 2020.

2. El representante de Errenteria Bernardo Lemos plantea dos solicitudes:

- por una parte, solicitan un plan para que el vertedero de San Marcos se cierre de forma definitiva, estableciendo los plazos pertinentes para sacar de allí cuanto antes el tratamiento de los residuos voluminosos y el de las podas;
- por otra parte, solicita que se tengan en cuenta las necesidades especiales de recogida durante las Navidades para que no se den los mismos problemas que el año pasado por la insuficiencia en la recogida y/o capacidad de los contenedores de vidrio y envases.

El Presidente responde como sigue:

En relación a la solicitud relativa al centro de San Marcos, dependerá del plan de gestión de GHK para la planta de Zubieta, por lo que este tema deberá coordinarse con GHK. Se mantendrá informada a la Junta al respecto.

En relación con la segunda solicitud, se comentará con el técnico responsable para que la recogida sea lo más efectiva posible en todos los ayuntamientos.

Cierre de acta

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 10:05 expresado en el encabezamiento.

Levanto la presente acta en las hojas oficiales números 1452521 al 1452528 de todo lo cual doy fe, con el visto bueno del Presidente.

EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK